Arrakalak

Gotzon Barandiaran

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2004 Gotzon Barandiaran
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2004ko azaroa
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Hau liburutxu hau
gure aite zanari
eta gure ama danari
eskaini gure dotsiet,
Pedro Luis Barandiaran
eta Begoña Arteagari.

HORMETAN GORA IBARRAK

Arrakala hau

pasabide jaioberria da,
haserretu diren belaunak,
mutuaren ezpainak,
erreka mapan behera.

Arrakala hau

kartzelen hormetakoa da,
36koak orbandu ez didana,
erdibatu ezinezkoa,
hankabakarraren lasterketa.

Arrakala hau

amaitu bako aitorpena da,
txaloka bizi den igogailua,
barreka dabizen betileak,
suak hartutako itxarongela.

Arrakala hau
zure bihotzeko postontzia da.

BEHAR EZ DENEAN

Ematen ditut lekzioak
dakidanaz eta ez dakidanaz,
ezki-hostoen buruhiltzeaz zein
sahatsaren ilargi beteetako negarguraz.
Esan hitz bat eta esango ditut bi,
behar ez denean mintzatuko naiz
ordura arte inor ez bezala,
isiluneei berariaz hartuko diet aurrea,
zalantzei gailenduko natzaie
inoren gustuko ez diren erabakiak hartuz.
Entzungo didan norbait behar dut.

CAFÉ DE FRANCE

Sarrera antzoki batekoa du
edo Krakoviako ijito zebagaitzak
etorkizuna igartzeko duen logelakoa.

Kristalak galdeketa-gela batekoak ditu
eta bestaldean kafea eskatu dutenek
orduak egingo dituzte entzunbako izenak aitortzen.

Atzamarrekin mahaian saltoka dabilena
eguen arrastietako pianojolea da.
Edith Piafek kantatu zion negarmina errepikatzen
du.

Erori ez den txanpona hartzera makurtu dena
urteetan garbitu dituen zapaten entzuteaz harro da
gonape bati begira soleitzen den bitartean.

Berpiztu berritan elkar agurtu dute
Jean Pierre Bordazarrek eta Jon Mirandek, eta
sorterria
eskatu dute, naturala, samako minik ematen ez
duena.

EGURREZKO TRENA

Peruri

Trenik hartu behar badut
izan dadila egurrezkoa.
Izan dezala aurrean soka laburra eta
koloreak, bidazti bakoitzeko bat,
adibidez gorria, adibidez berdea,
adibidez horia, adibidez morea.
Agurtu ditzala lurrunak estazioak,
igo daitezela elefante tronpa luzeak
leihoak zabaldu eta abisua eman dezaten
bagoazela alfonbraren ortzimugarantz,
irrist egiten duen itsasoa hasten den lekurantz.

Trenik hartu behar badut
izan dadila egurrezkoa.
Jakin dezala makinistak
non galdu duen ilargiak irria,
kanta dezala hartzak
Itziarren semea mututu zenekoa,
dantza dezatela pailazoek

lehenengo hanka bat gero bestea,
luza dadila arratsaldea
itsas-zaldi, dortoka eta olagarroek
bainontzia hoztu arte.

Trenik hartu behar badut
izan dadila zulakoa.

AZKEN MANIFA 1

Zerbait esateko bildu ginen
jeneralaren izen bereko plazan.
Poliziek akademiako lehen ikasgaia
azaltzeari ekin zioten adeitasunez.
Batzuei burdinez uztartu zizkieten eskuak,
besteei gomazko akuiluekin erakutsi zieten bidea
eta
gehienak porlanezko estratetan kukutu ginen
banketxeetako sator-zuloetan gorderik
banaka-banaka, benetan
zer irabazi behar genuen jakin barik
edo galtzeko borrokatzeak ere
merezi zuela sinetsi guran.

Zazpi zeritzon portalean nengoela heldu zen,
sartzen utzi nion errime esan ziezadan:
Eman muxu dardaran, ferekaidazu ikara,
maita nazazu ongi-etorri honen gainean,
azken manifa badugu hau,
irabaz dezagun larruak ematen diguna,
irabaz dezagun geurea.

AZKEN MANIFA 2

Beste hesi batera igo eta
poliziei zein bertan bildutakoei
Hego Korean hazitako berbok esan zizkien:
Munduko Merkataritza Erakundeak
laborariak hiltzen ditu.
Ondoren labana sartu zuen
bularraren erdian,
munduak jakin zezan
beti esango zuela egia.

EGUN BATEKO ZORIONA

Goizak alua ematen du,
konturatu orduko bedatsea
leiho arteko ostargia
iturri xahuen edagalea
kurloien eleketa hego haizeaz.

Arratsak belartza dirudi,
oroibelarren igurtziak belarrietan
oin biluziak atzamarretan
esku matxinbratuak garondoan
belaunetaraino larrugorritzen den iluntzea.

Gauak afaria ematen du,
disko zaharretan ahaztutako kantak
lagunekin dantzan goizargitzen
portaleetan besarkatzen diren itzalak
oherako agurrak arnasestuetan.

Pozak ezkila dirudi,
inozo deslaien antzera
irririk ez behartzea
barkamenik ez eskatzea
ezeren jabe ez izan nahia.

HELBURUA

Gizaki ororen helburua
jakituria dela
entzun diot gizon bati telebistan.
Aipatu ditu filosofoak,
batzuk grekoak
beste asko aristokratagoak.
Aipatu ditu idazleak,
batzuk portugesak
beste asko salduagoak.
Aipatu ditu iraultzaileak,
batzuk sozialistak
beste asko amnesikoagoak.
Aipatu ditu kritikariak,
batzuk irakasleak
beste asko zikiratuagoak.
Une batez,
atzamarra eta betaurrekoak
goratzeko erari erreparatu eta,
bere buruaz ari zela begitandu zait.

SUIZIDA

Suizida zazpigarren aldiz
zubiaren gainean
hil aurreko hitz gogoangarriak
asmatu ezinean.
Bat-batean zubiak
errepideari keinu egin eta
suizida bota dio esanez:
hegan ala hil.

MUNDUA EZ DA NAHIKOA

Sartu eta erantzi ondamua.
Sekretua esaten diozu edozeri.
Beti zabiz trenez, bidaiez, loreez, ilargiaz,
izarrez, lainoez, erlojuez, denboraz.
Sarritan esaten duzu
ez duzula artilezko ilerik laztantzeko,
ez duzula irakurtzea merezi duen ezer idazten.
Neu ere bakarrik hartzen nau goizak gehienetan,
taberna zulo honetara biltzen garenoi legez.
Arrakalak ditugu zainen ordez,
gezurrak esan eta tristura eztitzen diogu elkarri.
Arnasa hartzeko modu sinetsezina dugu,
sukar iraunkorra, ispiluekin batera hautsitako
banidadea.
Badakizu, gure minak ez du urrearen baliorik
baina horrek ez digu gustura horditzea eragozten.
Hara, zu sartu aurretik
gizon bat joan da pozarren
maleta batean bala gehien gorde dituena dela
ospatuz,
sariarekin loreak eta izenak erosiko ei ditu

hilarriek goserik izan ez dezaten.
Bihotzak betiko utzi duela pentsatu dut,
mundua ez dela nahikoa
behar dugun maitasunerako.

PROMESAK

Arrazoi duzu,
aspaldian ez dizut deitu.
Denbora iragan da
maite ez gaituztenez
berba egin genuenetik.
Pentsatuko duzu
jada ez naizela oroitzen
goizalbarainoko hordialdiez,
askoz hobea izateko ahaleginak
amore eman zidala behinola,
nahiago dudala
eduki ez nuena ahaztu,
izan ez nintzena ahaztu.
Arrazoi duzu,
ez betetzeko promesak egin nizkizun.
Baina zuri ere
begiak erori zaizkizu
atze-oihalaren bestaldera,
zu ere bakarrik zaude eta
ez zara gose eta
ez dituzu aladurak gazuretan beratu nahi eta

ez duzu denbora ezkaratzen antzera bizi nahi.
Esadazu ez duzula
bideratutako sentipenen geroa hobetsi,
esadazu zuri ere behazuna darizula
ustelberen ospakizunetan.
Zatoz, kontaidazu berriz
jentilak izan gineneko hura,
bete gezurrak
neurriz esateko hitza.

HOGEI URTE

Faltan ditut
hogei urte,
neurririk ez duten ordekak,
soilik biluzik egin daitezkeen harrabotsak,
itzuliko diren desagertuak,
laztanen anpolai begiak.
Faltan ditut
presarik ez duten izarlokak,
ausikien aurkako mantarrak,
egun aratzen arnasa,
goizeko eguzkia izara zurietan,
oharkabean bizitzeko askatasuna.

BIDE HORI

Begituizu bide hori
suge-landareen antzera
bere amaieragaz zer egin ez dakien hori.
Begituizu estrata iturrian utzi eta
otaloreak agurtzen,
malden konkorrak laztantzeaz batera
sekula-belarren ezina arintzen.
Begituizu sasi-masusten hankapean olgetan,
gaztainondoei kilikilika,
hostoei sehaska kantuan
txistuka dabilen haize gozoarekin.
Galdeiozu iparrorratzik daroan aldean
gandua esnatzen ez denerako.
Galdeiozu ogi apurrik gorde duen
katekorratzek min ematen diotenerako.
Galdeiozu lagunik gura duen alboan,
akaso, zeu zoazen lekura doa.

BETOKERROKAZ IKUSTEN DITUT

IRAGARKIA

Agian norbaitek izango du
gau txiki eta estu bat
bakarrik egoteko
ilargirik gabe
izarrik gabe
sehaska kantarik gabe
lagunik onartzen ez duen ohatze batean

BI EMAKUME HARAGO

Bazterkaletik bi emakume harago,
kantari baltzarana eta soinujole errumaniarra
gurutzatzen diren kantoipean,
begiek ikusi nahi ez dituzten haurrak,
zazpi solairuko alargunak
—labankadez jaiotzen diren horietakoak—,
zimurrak alkandoretan,
hotza afarietan eta
putatzar halakoa zenbat aldiz esan behar dinat!
bizi dira.

Bisitan joaten direnek
argazkiak egiten dizkiete,
esan barik bazkalostean erakusteko direla
koilara erdi azukrek eta
sasoiz kanpo bidaiatzeak dituen
onurei buruzko gogoetekin batera.

Bazterkaletik bi emakume harago
etxez aldatzeko kamioi hotsa dago.

ITZALITAKO ARGI BAKOITZEKO

Berandu heldu zen senarra ohera.
Loak hartu zuen hordi eta guzti.
Eskuen gainean itzarturik,
ausartu egin zen anderea.
Esan zion gazteegi hil zitzaiola maitasuna,
laztan ezak arroztu ziola ezkonaurreko bihotza,
damorriak umeltzen zuela euri egunetan,
barauez asetzen ikasi zuela,
debeiatu zela luzeegi bizitzeaz
egunak goizetan zahartzen zitzaizkionetik.
Esan zion ezetz,
ahanztura azkar hedatzen ari zen gaitza zela
zapiek aurkako ahaleginak egiten bazituzten ere.
Esan zion ezetz,
ez zuela gehiago bere emakumea izan nahi
eraztunari sinesgaitz egingo bazitzaion ere.

Esan zion ezetz
eta balizak jantzi zituen oinetan,
soineko gorria beldurretan,

zulatu zuen ihes-txartela eta
birak eman zizkion munduari,
jipoitutako promesa bakoitzeko bat,
mesanotxean itzalitako argi bakoitzeko bat.

TIRANOAREN LARRAZKENA

Gizona baino agindua zena dator
kalean behera.
Herritik kanpo urteak eman dituztenek
ez lukete ezagutuko, baina berori da.
Oinez hasten denero
galdu egiten da,
urteak lorik hartzen ez duela
urteak lazturak balakatzen duela.
Behinola azorriak izandako besoak
makulu ezinduak baino ez dira.
Orduko errietak izozmendi
etsituak dira orain,
ereinotzaren loriapean
zimeldutako handiusteak.

Enperadorearen malenkoniak
hausterrea pilatzen du zedarrietan,
neskameek ateak giltzatzen dizkiote
erdeinuak oka egin diezaion.
Orbelaren iraultzak

marmolezko idulkia garaituko du.
Jada ez dauka zutoihalik,
adabuak eta trapu zaharrak besterik.
Gorrotoaren mirabe dator
tiranoaren larrazkena.
Galdu egin du eta
horixe da guk irabazi duguna.

ESKOLAN

Besterik ezean jakin nahi dut
zelan isildu aitez harrotzen diren seme-alabak
non dagoen igande arratsetarako saihesbidea
zer eman bizitza eskatzen dutenei
nork hustu dizkigun ganbarak
zergatik aldatu zuen zure kaleak izena
noiz berrerabiliko ditugun hilkutxak

POSTARIA

Gure herriko postariak
ez daki irakurtzen.
Aitari ikasi zion etxeei usaina hartzen,
gutunetako letrak
ate eta ahoekin berdintzen.
Kaletik doala
solasean ari direnei erreparatzen die,
ezpainen gimnasiari,
bekainen zalantzei,
eskuen erotasunari.
Hartara jakiten du
zein gutunek hitz egiten duten maitasunaz,
zein helbidetara doazen galderak,
zein fakturak itolarritzen duten etorkizuna.
Gutunik ez dagoen egunetan
zigiluak itsasten ditu
bekokien goiko ertzetan.

ISILDUTAKOAREN ORDAINA

Kale kantoian batu dira
gudaren batean mezulari izan zirenak.
Azken mandatuaren zain daudela diote,
baina sasoi hobeak goratzeko
bildu direla ematen du.
Besarkadetan falta direnak
gogoratu dituzte lehenik
eta alegiazko balentriez hasi dira gero,
zaldi gaineko haiez.
Errusiako enperadoreari gutun puta bat ematearren
bizitza eta ohorea nahastu zituenaren antzekoak
dira,
nahiz eta ondo dakiten ospea
memoriaren apeta baino ez dela.
Sekretuak inork baino hobeto
kontatu dituzte,
gabardinetako poltsikoetan
ezkutatu dira morteroetatik,
ezelango hiztegik ulertu ezinezko
pasahitzetan lubakitu dira.

Zortzietan, afaritarako kanpai hotsak
jotzearekin batera, zin egin dute
bihar ere azpilanetan jarraituko dutela,
ez direla hiletetako sermoilariez fidatuko.

Isildutako guztiaren ordainez
egin ziren mezulari.

AKTOREA

Inoiz beharra sentitzen dut
protagonistei oker daudela oihukatzeko
ederra izateak ez duela deus ziurtatzen simulatzeko
larrua ez den beste edozer jotzeko
antzeztea politika dela diotenak urkatzeko
kadirei isiltasuna eskatzeko

Aktorea naiz baina
ekintzailea izateko prest nago

PANPINEN IRAGANA

Musika, ardoa eta zotinez itzaltzen diren argiak.
Oroimenaren aleak sobornatzen dituzten
aduaneroak sartzen zaizkio leihoetatik.
Jada ez du zerikusirik
hezetasunak arrakalaturiko argazkiekin.
Ortozik zapaltzen ditu egunak
hotsandiek berriz antzeman ez dezaten,
ez du inork ezagutzerik gura,
nahikoa panpindu zuten elkarrizketetan.
Hala ere eldarniotan berregiten du
sormenarekiko emamintza,
emanaldi bikoitza asteburuetan
eta erdia astegunetan:

«Jaun-andreok,
hartu nork bere lekua!
Gonbidatuak berandu datoz baina
iraultza hastera doa!
Badatoz
ero, eri eta maitasun gabeak!
Badatoz
hebain, margolari itsu eta biolinjole

besamotzak!

Badatoz

andere jipoitu, ogi ebasle eta bankuetako zordunak!

Badatoz

eguzkirik gabeko egunak eta etxerik gabeko herriak!»

Eromenaren aurreikuspena

zaila da ordaintzen eskura edo mailegutan

iragana bizitzaren narrioa denean.

Panpinek ez dute atsorik besarkatu beharrik

loak hartzeko.

PRAKETATIK BELAUNAK

Zoriontsua izan zen
praketatik belaunak erortzen zitzaizkion sasoian.
Orduan erraza egiten zitzaion bizitzea:
zuhaitzen adar, gerezien esku,
bazkalordurako berpizten ziren proskritoak,
beldurrarekin bakarrizketak, zubiak hankazpietan...

Munduari bira ematen zion ekaitz egunetan,
mugazainak aizunduz baserriratzen zituen
galtzaileak, aita ezezagunen semeak,
kurrilo iheslariak eta borroka itzelen laburdurak.
Poza ez zion ezerk akabatu
ez bada ustezko maitearen eztenak.
Harena izango da
zaurion zilbor-hestea.

ERRUKIARI IHES

Egunkaria erostetik nentorrela ikusi dut.
Urteak izango dira gogoz kontra eraman zutenetik.
Bere borobiletan darrai eta horrek poztu egin nau.
Bereak ditu sorbalda zalantzakorregiak,
kikiltzen ez diren begiradak,
bakarrizketa ozenak zeruari so.
Gaur lako itxuratien egunetan
marrazten ditu borobilok,
agur bakoitzeko bana.
Zeharkaezin diren borobilak dira
ez bada kanposantuetako hizkera dakitenentzat.
Olgeta disekatuen mintzaera da,
benazko herrenen mendekua
ulertzeko ahaleginik egiten ez duen jendearentzat.

Agurtu egin nau
eta goizero legez galdetu
noiz lagunduko diodan ihes egiten
errukien arkupeetatik ostertzerantz,
urkietan gora beti,

ikasi gura ez duen mundutik,
noiz arte gotortuko diren
zoriontsuak lubakietan.

ZAPATAK LEKUZ ALDATU

hori bai *izan ziren,*
diren eta izango direnei

Adinak arnasa hartzen duela
murmuriatzen dute karta-jokoa
auzokoen espioitzarako darabiltenek.
Kexu dira ez ditudalako
arauak buruz ikasten.
Ezen agureek guda aurreko elizbarrutietan
ebatzitako ordenak baitituzte bizigai,
ezen gazteok guda oste honek egin baikaitu
dena eskura izatearen galtzaile.
Jaio eta zahartu, dena bat.
Gaitz endemikoa dela
esango luke gure gaztetxeko zirujauak,
dagoena dagoenean betikotzearen malura,
diskurtsoaren apoplejia kronikoa.
Egunen batean ugertuko ditut
niri buruz esandako gezur beltzak,
arrakalatu egingo dut
ezkilekiko duten irrika,

itaunduko diet zenbatgarren bizitzan
utziko diogun etsai izateari,
noiz arte izango dioten izua
zapatak lekuz aldatzeari.
Oraingoz, ohartxoa utziko diet burukoaren azpian:

ken itzazue zapatak, etzan zaitezte ortozik
poliziek okerrekorik eroan ez dezaten.

KALE-GARBITZAILEA

Gauez gosaltzen du
bezperako egunkariekin solasean.
Hotzetik, erdeinutik eta handiustetik babesteko
lohiartzekoa jantzi eta kalera doa
beharra esaten diotena egitera.
Sakonera bako gurdia hartu eta erratza astindu,
pozik dabil hiriari aurpegia garbitzen,
pozik katamaloei lokarriak mozten.
Pausaldietan harri landuz zorrozten ditu
maitale urduriek bihotzetan trebaturiko geziak.
Iraultzaren aldeko ekintza lez
odol gorriko lumak elkartzen ditu
geltokietako afixen esanak zuzen ditzaten.
Irabazleen ohorea hebaindu guran
hari ikusezinak lotzen ditu etxeorratzen belarrietan
pailazo itsuak zein zakur bakartiak
gorbatadun bulegoez trufa daitezen.
Lantzean behin ileordeak kausitzen ditu eta,
anonimoak izatera,
Juliet lako izenak asmatzen dizkie.
Gaua itzartzerako

pozik dabil hiriaren aurpegia
emakume izateaz nazkatuta dauden
ezpainetakoekin margotzen,
pozik dabil.

SOLDATAPEKO DIOSALAK

Jaxinto Barandiarani

Gudari zahar batek
esku mutilduaren bi atzamarrekin
zabaldu du oroitzapenen zirrikitua.
Bere kautan soldatapeko diosalez mintzo da:
«Agur egitea, karramarroen antzera,
atzerantz bizitzea izan liteke,
inoiz inora ez heltzea,
amaierak hasieretan kausitzea.
Baina zuontzat
oroimenaren galbahetik
amnesia gordetzea da.
Historia eta hiztegi ortopedikoak
saltzen dizkiguzue atez ate, katez kate.
Ezetzak argizaritu dizkiguzue belarrietan,
badakigu gure hizkuntza
komisaldegietako tortura geletako
atariko froga duzuena.
Buruz behera negar egiten ohitu gaituzue,
eta horrenbestez
idatziozue epilogoa zuen lotsari».

ESPALOIAK

Amodioa, iraultza, kontu korronteak,
irabazle perfektuak hartzen ditugu eredu.
Ostera, nik ezagutzen dut
non jaio zen ez dakien
eta aldian-aldian
zorabiatu egiten den borobila.
Gure auzoko laukiaren aldeak
maitaleak dira aspalditik
baina denok dakigu
ez dutela egundo elkar laztandu.
Goiz batez plaza erdian
agertu zen hirukiaren goiko erpinak
negar egiten du astean bitan
bakarrik sentitzen delako eta
bertigoak loa galarazten diolako.
Izan ere, zertarako egin genituen espaloiak
ez bada herrenentzat?

NEUGANA DATOZ

ESKUAK ETA HARRIAK

Eskuak haurrik ez duten bularretatik
Eskuak ez dira urruntzen aginduetatik

Ezpainek indar dagite ezetzerantz
Ezpainak orratzei musuka atzerantz

Euria uholdeaz erditu ezinik
Euria harriak samurtu gurarik

Sorlekua mutiri ukatu
Sorlekua labarretan amildu

Zerua gizonen otoitz ukatuentzat
Zerua gorputzen neurriko begiontzat

Aingeru beltzak hegaldatu zitzaizkion sabelpean
Aingeru beltzak heriotzaren jakinean

Hormari bizkarra ematen dio Aminak
Hormari aurrea hartzen dio Safiyak

Harriabarrek ubeldu diote maitasuna
Harribilek mailatu askatasuna

EGUNKARI BAT ATRILDU ZAIGU BESOETAN

Ikusi nuen azkenengoetan
erraietan gordetako altxorren zamari zebilen.
Esnatzearen atalasean oraindik
ezpainak estutu eta begiak itxi arren
atzamarretatik ihes egiten zion
urmaeleko haurtzaroa oratu guran.
Halako ametsak etetea
bizitza erdia elkarrekin igaro ostean
banatzen diren maitaleen desilusioa izan liteke,
atzera ezin eginaren uste osoa.
Baina zer jakin lezake ausentzietan hazitakoak
bizitza erdia inorekin konpartitzeaz
ez bada bere bakardadeaz?

Hiztegi bat behar dut
ene ezjakintasunari erakusteko,
orrialde zuriak zabaldu eta
testigantzen definizioak apailatzeko.

Kaleak biraoka ibiltzen dituzten
berba-hiltzaileekin ikusi nuen urruntzen
kantu ederren eskean,
urrezko ardilarrua jantzi ezinik eta
emagaldu itsu eta ezpatariaren
balantzetatik zintzilik.

Etorkizunaz iragana denean kezkatu gara,
paperezko amets bihurtu zaizkigu egunak
erreka izandako bidazti edadetuak,
ostatu bat hitzen herrian,
ahots hilak elkarren lotsa.

Beste guztia dioten hitzak
izan daitezela ura lakoa,
zabal ditzatela arrakalak ibarrak sortzeko,
xurga ditzala gure lurrak.
Ibilian hiltzen ikasi behar dugu,
eta berandutuz gero ez larritu;
hitzei begietara begiratzea baino ez dago
zintzoak diren jakiteko.

Orri baten azalean

zizelatu zigun mezua,
bihotza bahitzea gura zuela eta
ez zegoela erreskatea ordaintzeko prest.
Eta guri
egunkari bat atrildu zitzaigun besoetan.

EZ DEN LURRALDEAN

Carusok atzekoz aurrera
ematen ditu filmak edo
eskumatik ezkerrera edo
goitik behera.
Aktoreek amaieratik hasten dituzte elkarrizketak,
berpiztu eta desagertu egiten dira,
euria hodeietara itzultzen da
kea zigarrokinetara legez.
Zinema kritikaria dislexikoa bezain herrena da.
Bere laburmetraiak oso aproposak dira
olatuen gainean ikusteko.
Antonio Tardiniren lehen teoriak
fisika modernoa, etxekoandreen egunerokoa eta
jostailugintza irauliko ditu,
erlatiboa da dena.
Bigarren teoriak
ahuntzek espazioan lor dezaketen
gehiegizko abiadura du oinarri,
sexua da dena.
Hirugarrenaren truke
estatu kolpea, elektrodoak eta

herritarren arbuioa jaso ditu,
berdinak gara denak.
Bada taxi gidaria izateari utzi,
albistegietako aurkezle ospetsu egin eta
arrats gorrietako isiltasuna
bere izena bezainbat maite duen anderea,
Soledad.
Borrokatzeko nagi den boxeolariak Maria maite du,
eta honek, saiatu arren,
ezin du pianoa atzamarrik gabe jo.
Edgar Wesley trenak ekarri du
txaloak jaso eta frantsesez hitz egitera.
Poeta izan asmo duenak
urtean behin errezitatzen ditu
txakurra ur eske etorri zitzaionekoak.
Gaitzik larriena euriaren pisua da
haizeak zer daroan ez dakitenen lurraldean,
bizitzea beste derrigorrik ez dagoen lurraldean.

KALKILIAN BADA NESKATILA BAT

Ez dut urrunegi joan beharrik
amets egiteko.
Nahikoa ditut aldiriko trena eta
itsasoen labarretan jolasten diren bide herdoilduak.
Ezagutzen ditudan hirien izenak
ezagutzen ez ditudanenak bezain politak dira.
Ametsotan amaiera bako ordeketan arnasestutzen
naiz,
olibondoek deserritik itzultzean
hegazkinak ahoratzen dizkidate koilaretan,
telebistan lekutako gerren irudiak daude
judu alderraiak ez baitu lurrik aurkitu.

Ez dut urrunegi joan beharrik
amets egiteko,
baina joan nahi nuke eta ikusi:
Fusilak iruntzietara dioen bide seinalea,
harria eta hesia betiko banatzen,
soldaduak madamengandik itzuri,
hamabi urteko neba amaren altzoan,

zein izen izango duen biharko euriak eta
mundu osoko telegrametan
Kalkiliak ez du Berlinen beharrik.
Stop.

SAKATU

Bahituran dagoen gizonak
bizi nahi duela errepikatzen du

sakatu

Ekonomiaren nazionalistak
beste hogeita bost urtez aberastuko dira

sakatu

Cardiffeko uso gris eta beltz batek
Picasso eta Moneten lanak bereizten daki
baita Matissen margoek
Picassorenen antza dutela ere.

sakatu

Gasteizko Florida parkeko uso zuriek
ez dakite eskutik jaten besterik

sakatu

Ostarteek oporrak luzatuko dituzte
kantariak neguaren oldarpean
isil ez daitezen

sakatu

Gazako haurren biziraupena
hamahiru urtera igotzea deliberatu dute

sakatu

Kolonoek lurra jaten dute
harresiaren ortzimugaraino

sakatu

Dinosauroek aditz forma irregularrak zerabiltzaten
kromletxen erabilgarritasunaz teorizatzeko

sakatu

Euskaldunek ez dute
nor diren azaldu beharrik

itzali

ZARRATZEKOAK

ZURE OINETARA

Pozik etzango naiz zure oinetara,
ezer esan orduko
igarriko dizut haserrea eta
neuregain hartuko ditut
errua zein egoismoa.
Burukomina arinduko dizuten
igurtziak ikasiko ditut,
lepoa jokatuko dut
aitzakia bakoitzean,
labur iritziko diet
kanpoan emandako asteei,
esperoan egongo natzaizu,
begi bat itzarturik egingo dut lo.
Dei egidazu itzultzen zarenean.

HI GABE

Itziarri

Berriztutako ametsak
galdutako esperantzak
erraietatik ateratako
etsipenaren arantzak

Esadan zer naizen hi gabe
hirekin naizena ote?
Emaidan muxu suabe
amodiotan nerabe
ezti gozoen altzoetan
desio grinen herabe

Egonen gaitun betiko
iluntze gorrien begiko
maite laztanez emeki
geurea dena biziko

Maite haut itsuan
kopla kanta amultsuan
ezinak egina maite duen
amaiezin bertsuan

OIN-PUNTETAN

Oin-puntetan kandelak isiotzen dituzten
emakumeak ditut atsegin,
axolagabe ikusten diren bernak,
urratu bat atzamarrez bustia.

Oin-puntetan kandelak isiotzen dituzten
emakumeak ditut atsegin,
berbarako aitzakien bila makurtzen direnak,
ileetan musua eta bertan irria gordetzen dutenak.

Oin-puntetan kandelak isiotzen dituzten
emakumeak ditut atsegin,
maiatzetik hona bila dabiltzanak,
askatasunaren enparantzak baizen gehiago direnak.

Oin-puntetan kandelak isiotzen dituzten
emakumeak ditut atsegin,
belarrietako lo-kantetan daudenak,
altzoetan oroipoza diren amamak.

Oin-puntetan erretzen diren

emakumeak dituzte atsegin,
urak mudatzen ez dituen hazpegiak,
maitasunaren lander direnak.

HAGIN BARIK DEIKA

Gaur beltzaran esnatu naiz;
azala, armozua, azaroa
dena da beltza.
Adatsik ez dago nire masailean,
irratiak hizkera arrotzez ernegatzen nau,
bakardadea ari zait hagin barik deika,
zure gogoa urruti abiatu da,
ez nauzu betiko maite,
lausotu dira epeletan esanak,
ezpainak alokairuan dituzu,
ez dago erraz zer egin ebaztea,
jada ez gara zu eta ni.
Zer dela eta derrigorrez bizi behar hau?
Erruak zuritzeko elurra behar dut.

BALSIK BALEGO GURETZAT

Esperoan eman dudan denboraren ordaina
sabeleko kilima hauek dira,
moropilok iruntzikeran.
Itxarondamua aztarrika ari zait,
ez dut beste inon bilatu beharrik.
Aska ditzadan agurrak oin azpietatik,
datorrela ausardia berritsu.
Azken hondarra abantzu hila da,
bestela, naizenik jakiteke joango da,
esan egin behar diot:
Erdu, utzidazu zure ile artean ostentzen,
besoarekin beteko dizut gerria.
Erdu, jarri begiak zirrikituan,
esadazu ikusten duzuna
nahikoa ote den.

ASUNAK ZURE BEGIAK

Azkura baretzeko
araoa kausitu ezinik nabil.
Igoko nituzke huntza balira baina
asunak dira zure begiak.

Porlanez estali ditut
xangrinaren kondarrak.
Dardararaziko nituzke sokak balira baina
asunak dira zure begiak.

Mihisean aienatu da
zure etxerako bidea.
Igurtziko nituzke bernak balira baina
asunak dira zure begiak.

Ipurtargiak itzuliko dira
kakalardoena zen estratara.
Estutuko nituzke uberak balira baina
asunak dira zure begiak.

BIDAZTIA

Ez dago mesanotxerik
ohearen zure ertzean,
oihartzun bakoa da
zure atzamarren tinbre hotsa.
Ez duzu zapaten zantzorik
atariko lanpasean,
hanka puntetan alde egiten digu
maitasun gauetako egunsentiak.
Ez dakarzu bidai txartelik
ez bada joanekorik,
erlojuarekin batera zapartatzen diren
laztanez nago hilurren.
Etorri zatoz baina
ez zara egundo geratzen.

ISTRIPUAK

Auto batek istripua izan du,
ez atezainak kornerrean bezala
ez lisaburdinak galtzetan legez.

Auto batek istripua izan du
berrehun eta hogeita laugarrenez,
esaera zaharra izan nahi lukeela aldarrikatuz
egoskorrari egokitu dakiokeen sententziaz.

Auto batek istripua izan zuenean
hots egin zidaten,
ez maitasuna egiten denean bezala
ez urteak aurrera doazela esateko legez.

Auto batek istripua izan zuen eta
Eneko ubeldu zitzaidan bihotzean
Gotzonek egin zidan ihes.

Ezetz galdetu nien erantzunei baina
Justizia bakartiegiak erabakita zuen aspaldi.
Asturua besterik ez da.

BILATUKO ZAITUT

Bilatuko zaitut
oparitutako liburuen orri zurietan
autobus geltokietako esperoan
legez kanpoko maluretan
fereken hitzaurreetan
laranja urezko armozuetan eta
portale bako larreetan

ILARAK APURTU

Ilarak apurtu eta faroletatik esekiko gara.
Hiltzeko moduko saltoa egin ostean
artez erori eta bi besoak goratuko ditugu.
Gehiengoaren laurdenaren erdiak
nazional sozialismoaren apologia egitea
leporatuko digula profitatuz,
buruz behera jarri, hankak zabaldu, zainak tenkatu
eta polizien kontra jaurtiko dugu elkar,
informatiboetako sabeliztunek
burdinazko tiragoma eta egurrezko ontziolei
buruzko
atzerabegirakoaren berri eman dezaten.
Eskola bete haurren laguntzaz
armada gorria eta geografia irakaslea bahituko
ditugu
mapen mugikortasunaz hitzarmena sina dezaten.
Bost segundotan euren buruaz beste
egingo duten mezuak zabalduko ditugu:
gezurra da maite gaituen egia.

EZ DA EZINBESTEKOA

Ez da ezinbestekoa
ilargi betea eta izarren ederra.
Ez da ezinbestekoa
deitzen ez duten lagunen agenda,
borroka armatua, arrazoia izatea,
gezurrik ez diozula zin egitea.
Ez da ezinbestekoa
erbestea, idazlea, itsasoaren metafora,
berrogei lapurren kondaira.
Ez da ezinbestekoa
eguzkia, andere biluzia hormaren gainean,
egunen destaina, non dagoen askatasuna,
bakea gorbatetan estutzea
ez da ezinbestekoa.

BERRIRO HASI

Eskua iragartzen duen andereak esan zidan
badudala nirea ez den marra bat
luzea, sakona, orbana dirudiena,
ene eskuan irakurtezina zitzaiona,
neronek deszifratu beharrekoa.
Marraren hasierara joan eta
tiraka hasi nintzaion, niganantz.
Badira hiru egun eta sei urte,
oraindik ez dakusat marraren azkenik.
Hasierara itzuli nahi nuke.

Eskerrik asko:

bihotz bakartien klubeko kide dekotezen Aintzina Lekue, Etxahun Lekue, Gorka Mugarza, Gorka Uriarte, Gulu Aurrekoetxea, Iñaki Berazategi, Marifeli Etxeandia eta Patxi Gaztelumendiri;
biderako kinkela isitu dostienei;
Xabier Gantzaraini, arrakala ederrik badagoela erakustearren;
Alex Arregiri, kukuen kantue topetan lagundutearren;
liburutxu honetako poemetan oinarritutako animazioak egin dituzten Bego Vicarioren Arte Ederretako ikasleei: Maite, Sabrina, Abarne, Veronika, Ander, Adur, Belen, Edurne, Itsaso, Alaitz, Unai, Andres, Iñaki, Lidia, Yera, Ines, Jose eta Begori berari.
Nestor Zabalari, arrakalen arpegiei atara dotsiezan argazkiengatik;
Itziarri, cómo gasto papeles recordándote, cómo me haces hablar en el silencio...;
eta batez be beti alboan dekotezen Alex, Ali eta Peruri.